

Buzoia

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Egunero begiratzen dut buzoia, ez posta elektronikoa, baizik eta fisikoa, ukitzen ahal dena. Ilusio puntu batekin irekitzen dut gainera, opari baten esperoan bezala. Nahiz eta ia beti hutsik aurkitu, emozio horrek ez dit alde egiten. Haur eta gaztetxotan izaten nuen irrika ekarriko dit gogora beharbada. Kaxa batean jasoak ditut postal eta eskutitzak, bertze mundu batekoak baina nire-nireak.

Azkenaldian bidali ere egin ditut gutun batzuk, herdoilak hartuta dagoen betiko buzoian utzita, haur baten pozarrekin, paperaren gainean irudimena hustuz, postontziaren ahoa behin eta berriro zabalduz gutun-azala ongi sartu

dudan egiaztatzeko. Erritu magiko batean. Baina zutabe hau idazten ari naizela ohartu naiz ez zaidala bat bera ere bueltan etorri, ez behintzat buzoira.

Ez dut nostalgiarik nahi, komunikatzeko moduez gogoetatu bakarrik. Elkarriketa da kazetaritza generoetan maitateen dudana; exigenteena ere bai. Elkarriketatuekin konektatzea gustatzen zait, gainerako guztiaz aiantzi eta gai batean sakontzea. Hori egiteko aukera dudanetan biziberrituta ateratzen naiz; arnasaz beteta eta sortzeko gogoz.

Gero eta gehiago solastatu eta gero eta guttiago aditzen dugula komentatu zidan elkarriketatute batek. Ez dakit. Egia da gai batetik bertzerara saltoka ibiltzen

garela. Ez diot gaizki dagoenik, baina sarri azalean gelditzen gara. Batzuetan, bakarriketa-lehian aritzen garen sentipena ere badut, elkar zapalduz, ahotsa altxatuz, solasaldian espazio gehiegi okupatuz. Eztabaida, ezadostasun eta kritikak maneiatzeko ditugun zailtasunek ere zerbait adierazten dute.

Badakit aditzen? Nori aditzen diot? Nori ez? Eta nori solastatu?

Orain aunitz aritzen gara 'enpatiaz'. Lehen ez genekien zer zen ere. Orokorrean aitzinera goazela uste dut; beren hauskortasunean komunikazio hariak hobeak dira. Halere, gustura hartuko luke nire buzoi bakartiak bisita bat. Plazer baduzu, helbidea utziko dizut. •

Ni naizena naiz

**Xabier Mikel
Errekondo**

Lantzean behin, nire buruak harritu egiten nau konturatu gabe atzematen dudanean bakarriketa lasaian doala barrurantz ahots isilean irribarre gozoari segika bezala. Gustura eta harro, bizi ditugun hemengo inguruneak bizi ahal ditugulako, argazki liluragarrietatik harago oihanean lez elementu guztien artean bat gehiago sentitzen naizelako.

Aberatsa da gure lurra, zaindu eta eman ez gero eskertzen dakiena fruitu anitz eta ugarirekin.

Metaforak ere egiten du pertsona, eta nola, baina oraingoan bertako lu-

rretako fruituetatik ekoitzi edari mirresgarrietan busti nahi dut. Bestela, ni ez nintzateke ni.

Mahats, sagar, lupulu, garagar, basaran... lurrari baino, gure lurrari lotutako zainek eman dezaketenek atrapatzen naute, ia-ia haietatik malkotutako likidoak adina, liluraz horditzera...

Ardo, txakolin, sagardo, garagardo, bermut, patxaran, cava, etab. Denetik daukagu bertako nekazari eta ardogileen eskuek ekoitziak, eta beste edonongoekiko... hemengoak.

Hain justu, oraintxe bizi dugu urrezko edariaren garai magiko eta aparta,

sagarra jo eta sagardoa egiten haste-koa. Aberastasuna, osasuna, kultura eta txinparta ematen diguna.

Ni arnasten dudana naiz, jaten dudana naiz, edaten dudana naiz...

Eta ene isilean burbuila artetik burutazioa datorkit, paisaia geure erabakiekin eraikitzen dugula eta, beraz, nola-koak gu halako lurra...

Irribarrea areagotzen sentitu dut bihurri ene tripetatik Delirium Tremens entzutean eta ozen abestu dut eztarria urratzeraino «...ni naizena naiz!».

Txoooootx! •